<table>
<tr><th>HH5</th><th>ARGAZKIA</th></tr>
<tr><td>
Sarrera Nagusia Frontoira sarrera ematen duen atetik egingo da. Ikasle/familia eta markatutako lekuan zain egon beharko dira dagokion segurtasuna tartea errespetatuz.
Eguerdian etxera bazkaltzera joaten diren ikasleentzako irteera eta sarrera aipatutako leku beretik egingo dira.
<u>IRAILAK 7-11 BITARTEAN.</u>
Aste honetan zehar, ikasleak 9:00-9:15 bitartean sartuko dira geletara. Haurra tutore batek jasoko du eraikinaren sarreran, eta bere gelara bideratuko du tenperatura hartu eta eskuak garbitu ondoren.
<ul>
<li>Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez arinago ez beranduago.</li>
<li>Sarrerak bost laguneko aforoa izango du. Besteek atean itxaron beharko dute atean dagoen irakasleak deitu arte.</li>
<li>Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile…), laguntzaile bakarraz etorriko dira.</li>
<li>Ikaslea orduz kanpo badator, idazkaritzatik sartuko da, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz.</li>
</ul>
Ikasleak eguerdian, 12:00 aterako dira klasetik. Ikaslea BAZKALTZEN GELDITZEN BADA irteera 14:15etan izango da, markatutako ibilbide berdinetik.
Behin umea hartuta, ezin izango da ikastolan gelditu.
</td><td>
SARRERA-IRTEERA

ITXARON GUNEA

IKASGELETARA SARRERA-IRTEERA

</td></tr>
</table>